**INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA (28.09.10)**

LEHENDAKARIORDEA
INGURUMEN ZINEGOTZIA
KELTSE EIGUREN andrea

INGURUMEN TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jauna

IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA andrea

INGURUMEN AHOLKULARIA:
JULEN REKONDO jauna (Ingurune)

BERTARATU DIRA:
PATXI DIAZ jauna (Ingurumen eta Ibilbide Ekologikoetan izen handiko pertsona).
CARLOS ARANA jauna (Fegevol).
AMELIA ZORRILLA andrea (Basozaleak).
TXEMA GOROSTIAGA jauna (Ingurumen arloan izen handiko pertsona eta EHUko irakaslea).
PEDRO BARRENETXEA jauna (Eskolako Agenda 21 eta Aixerrota Institutuko irakaslea).
TOMI ETXEANDÍA jauna (Eskola Agenda 21 eta Ikastolako irakaslea).
XABIER BUENETXEA jauna (Ingurumen arloan izen handiko pertsona).
KOLDO NABASKUES jauna (URKOA Kontsumitzaileen Elkartea).
D. DIMAS RAMOS jauna (Kirol Elkarteak).
Mª ANTONIA ANTÓN andrea (RODA Emakumeen Elkartea).
D. ANDONI LOUZAO BUSTAMANTE Jauna (Ekologistak Martxan)

Bizkel elkarteko Anabel Dorado andreak ez bertaratzea aldez aurretik desenkusatu du.

Getxon, 2010eko irailaren 28ean, Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa bildu da egun horretako arratsaldeko zazpietan, aipatutako batzarkideak bertan direla

**GAI-ZERRENDA**

**1. “Gizarte-zerbitzuak Getxoko udalerrian”. Mikel Kerexeta jaunaren, Getxoko Udaleko Gizarte Zerbitzuen Arloko zuzendari teknikoa, azalpena.**

Mikel Kerexeta jaunak, Gizarte Zerbitzuen Arloko zuzendari teknikoak, bere azalpenak jarraian adieraziko diren bi puntuak barnebilduko dituela adieraziz ekiten dio

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE (28.09.10)**

VICEPRESIDENTA
CONCEJALA DE MEDIO AMBIENTE
Dña. KELTSE EIGUREN

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

SECRETARIA:
Dª. ARANTZA CABEZA

CONSULTOR MEDIOAMBIENTAL:
D. JULEN REKONDO (Ingurune)

ASISTENTES:
D. PATXI DIAZ (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente e Itinerarios Ecológicos).
D. CARLOS ARANA (Fegevol).
D. AMELIA ZORRILLA (Basozaleak).
D. TXEMA GOROSTIAGA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente y profesor de la UPV)
D. PEDRO BARRENETXEA (Agenda Escolar 21 y profesor del Instituto Aixerrota).
D. TOMI ETXEANDÍA (Agenda Escolar 21 y profesor de la Ikastola).
D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente).
D. KOLDO NABASKUES (Asociación de Consumidores URKOA).
D. DIMAS RAMOS (Asociaciones Deportivas).
Dña. MARIA ANTON (Asociación RODA).
D. ANDONI LOUZAO BUSTAMANTE (Ekologistak Martxan)

Excusa previamente su no asistencia Dña. Anabel Dorado de la Asociación Bizkel.

En Getxo, a 28 de septiembre de 2010. Se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

**ORDEN DEL DÍA**

**1. “Los Servicios Sociales en el municipio de Getxo”. Exposición de Mikel Kerexeta, director técnico del Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Getxo.**

D. Mikel Kerexeta, Director Técnico del Departamento de Servicios Sociales, comienza señalando que su exposición va a abarcar los dos puntos siguientes:

azalpenari:
1.- Testuinguru legegilea.
* Zein gai sartzen dira gizarte-zerbitzuen arloan?
* Abenduaren 5eko 12/08 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
* Abenduaren 23ko 18/08 Legea, Diru-Sarreren Bermerako eta gizarteratzeko.
2.- Getxoko Gizarte Zerbitzuak.
* Kokapena eta organigrama.
* 2009ko memoriako zenbait datu.

1.- Contexto legislativo.
* ¿Qué materias son de servivcios sociales?
* Ley 12/08, del 5 de diciembre de Servicios Sociales.
* Ley 18/08, de 23 de diciembre, para Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social.
2.- Los Servicios Sociales de Getxo.
* Localización y organigrama.
* Algunos datos de la memoria del 2009.

Testuinguru Legegileari dagokionez, abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/08 Legea aipatzen du, 2008.12.24an EHAAn argitaratua; artikulu garrantzitsuenen artean honako hauek azpimarratzen ditu:

En lo que respecta al Contexto Legislativo, cita la Ley 12/08, del 5 de diciembre de Servicios Sociales, que fue publicada en el BOPV el 24.12.08, que como artículos más importantes apunta los siguientes:

**OBJEKTUA (1. art.)**
**Prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea** sustatzea eta **bermatzea** izaera orokorreko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arautuz eta antolatuz.
**Homogeneotasuna bermatzea**.

**OBJETO (art. 1)**
Promover y **garantizar el derecho a las prestaciones y servicios** mediante la regulación y ordenación de **un SVSS de carácter universal**.
**Garantizar la homogeneidad**.

**ESKUBIDE SUBJEKTIBOAK (2. art.)**
Prestazioetara eta zerbitzuetara **sarrera eskubide subjektibo gisa** eratzen da (judizialki erreklamatzeko aukera).

**DERECHO SUBJETIVO (art. 2)**
**El acceso** a las prestaciones y servicios se configura **como derecho subjetivo** (posibilidad de reclamación judicial).

**ESKUBIDEAREN TITULARRAK (3. art.)**
Erroldatutako pertsonak eta **legezko eta benetako egoitza dutenak** (12 hilabete).

**TITULARES DE DERECHO (art. 3)**
Personas empadronadas y **con residencia legal y efectiva** (12 meses).

**LEHEN MAILAKO ETA BIGARREN MAILAKO ARRETARAKO GIZARTE ZERBITZUAK (22. art.)**
Zerbitzuen eta prestazioen katalogoa.

**SERVICIOS SOCIALES DE ATENCIÓN PRIMARIA Y ATENCIÓN SECUNDARIA (art. 22)**
Catálogo de servicios y prestaciones.

**LEHEN MAILAKO ARRETARAKO GIZARTE ZERBITZUAK (22. art.)**
**Informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazio** zerbitzuak.
EEAZ (Etxez Etxeko Arreta Zerbitzua)
GHEHZ (Gizarte Hezkuntzako Esku-Hartze Zerbitzua) eta EHPSZ (Esku-Hartze Psikosozialeko Zerbitzua)
Pertsona zaintzaileei laguntzeko zerbitzua.
Gizarte-zerbitzuen eremuaren baitan parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua.
Telelaguntza-zerbitzua (Eusko Jaurlaritzak kudeatua)
Eguneko laguntza-zerbitzua
Gaueko laguntza-zerbitzua
Ostatu-zerbitzuak

- Abegi-etxea; tutoretzapeko etxebizitza; tutoretzapeko apartamentuak eta etxebizitza komunitarioa

**SERVICIOS SOCIALES DE ATENCIÓN PRIMARIA (art. 22)**
Servicios de **información, valoración, diagnóstico y orientación**.
SAD
SISE y SIP
Servicio de apoyo a personas cuidadoras.
Servicio de promoción de la participación y la inclusión social en el ámbito de los servicios sociales.
Servicio de teleasistencia (gestionado por el GV)
Servicios de atención diurna
Servicios de atención nocturna
Servicios de alojamiento

- Piso de acogida; Vivienda tutelada; Apartamentos tutelados y Vivienda comunitaria

Ondoren, **Gizarte Zerbitzuen Arloko zuzendariak abenduaren 23ko Diru-Sarrerak Bermatzeko eta gizarteratzeko 18/08 Legeari** (2008.12.31n EHAAn argitaratua) buruzko aipamenak egiten ditu.

Posteriormente, el director del Departamento de Servicios Sociales se refiere a la **Ley 18/08, del 23 de diciembre, para Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social** (BOPV 31.12.2008).

**OBJEKTUA (1. art.)**
Diru-Sarrerak Bermatzeko eta gizarteratzeko Euskal

**OBJETO (art. 1)**
Regular el SVGIIS.

Sistema arautzea.

**XEDEAK (2. art.)**
Diru-Sarrerak Bermatzeko eta gizarteratzeko Euskal Sistema eratzea.

**OBJETIVOS (art. 2)**
Constituir el SVGIIS.

**18/08 LEGEAREN ALDAKETA IZAPIDETZEN**

**MODIFICACIÓN DE LA LEY 18/08 EN TRÁMITE**

**PRESTAZIO EKONOMIKOAK (6. ART.)**
**1.- Zuzenbidezko prestazio ekonomikoak:**
**DSBE (Diru-Sarreren Berme Errenta): orokorra 650,19 €/hilean,** pentsionista **738,85 €/hilean.**
**EPO** (Etxebizitzarako Prestazio Osagarria): orokorra **250 €/hilean** eta **320 €/hilean** (bere ardurapean 2 adingabeko edo aitortutako lanagatiko diru-sarrerak).

**2.- Laguntza ekonomiko subentzionagarriak**:
**LES**
Jarraian, Mikel Kerexeta jaunak Getxon dauden Gizarte Zerbitzuetako egoitzei egiten die aipamen kokapen-mapa bat bitarteko harturik eta hiru zentro daudela adierazten du: Erromo-Areetan, Andra Marin eta Algortan eta Udalerriko beharrak nahiko ondo estaltzen dituztela dio.

Bukatzeko, **2009ko Arloko Memoriako** zenbait daturi egiten die aipamen (Getxoko web-gunean kontsulta daitezke: www.getxo.net).

**Zuzeneko arreta**: 9.116 lagun artatuta (4.561 familia-unitate). 1.669 kasu berri izan dira.
**EEAZ** (Etxez Etxeko Arreta Zerbitzua)**:** 344 lagun artatuta.
**Telelaguntza**: 595 aparatu instalatuta.

**Eskaeren arrazoien** artean honako hauek aipatzen ditu:
* Mugak norbere autonomian: %19a.
* Gizarte Zerbitzuetako baliabideetara sarrerari buruzko informazioa: %16a.
* Gizarteratzeko eta /edo lan-munduratzeko zailtasunak: %7a.
* Bizikidetza-egokitasunik eza: %2a.

Gizarte-zerbitzuetako zuzendari teknikoak azpimarratzen duen alderdietako bat da, normalean, jendeak lehenengo beste laguntza-aukera batzuk agortzen dituela, esaterako familiarena, lagunena eta abar eta Udaleko gizarte-zerbitzuetara azken baliabide gisa jotzen duela, nahiz eta bestelakorik pentsatu ohi den.

Bukatzeko, zenbait zifra ekonomiko ematen ditu gastuari, diru-sarrerei, emandako dirulaguntzei, laguntza ekonomikoei eta abarri buruzkoak:

**Gastua**= 11.751.821,72 € ; **Diru-sarrerak**= 3.376.322 €.

**Erakunde kolaboratzaileei dirulaguntzak**:
13 lankidetza-hitzarmen. 179.943 €
38 dirulaguntza. 70.000 €.

**PRESTACIONES ECONÓMICAS (ART. 6)**
**1.- Prestaciones económicas de derecho:**
**RGI: general 650,19 €/mes,** pensionista **738,85 €/mes.**
**PCV** (la prestación complementaria de vivienda): general **250 €/mes** y **320 €/mes** (2 menores a cargo o ingresos por trabajo declarado).

**2.- Ayudas económicas subvencionables**:
**AES**

A continuación, D. Mikel Kerexeta se refiere a las sedes de Servicios Sociales existentes en Getxo, a través de un mapa de localización, señalando que existen tres centros: en Romo-Areeta, Andra Mari y Algorta, que abarcan bastante bien, las necesidades del municipio.

Finalmente, da algunos datos que contiene la **Memoria 2009 del Departamento** (se puede consultar en la web de Getxo, www.getxo.net).

**Atención directa**: 9.116 personas atendidas (4.561 unidades familiares). Suponen 1.669 casos nuevos.
**SAD:** 344 personas atenidas.
**Teleasistencia**: 595 aparatos instalados.

En cuanto **a los motivos de la demanda**, cita los siguientes:
* Limitación de autonomía personal: 19%.
* Información sobre acceso a recursos de Servicios Sociales: 16%.
* Dificultades de inserción social y/0 laboral: 7%.
* Desajustes convivenciales: 2%.

Un aspecto que señala el director técnico de Servicios Sociales es que, en general, la gente acude primero a otras posiblidades como la famil.ia, amigos, etc., y sólo recurre a los servicios sociales del Ayuntamiento coom último recurso, frente a la percepción contraria que se suele tener habitualmente.

Finalmente, da una **serie de cifras económicas** relativas a gasto, ingresos, subvenciones concedidas, ayudas económicas, etc.:

**Gasto**= 11.751.821,72 € ; **Ingresos**= 3.376.322 €.

**Subvenciones a entidades colaboradoras**:
13 convenios de colaboración. 179.943 €
38 subvenciones. 70.000 €.

**Laguntza ekonomikoak:**
1.529 DBE. 8.646.327 €
1.189 LES. 2.144.628 €
25 Aldizkakoak ez diren laguntzak. 31454 €.
28 LEI (Laguntza Ekonomiko Indibiduala). 92.941 €
196 FUL ( Familia Ugariei Laguntza) 17.740 €.

Mikel Kerexeta jaunaren azalpenaren ondoren, galderei eta iruzkinei txanda ematen zaie.

Galderetako bat Gizarte Zerbitzuen Arloko teknikariak kontratatzerakoan Getxoko jendeari lehentasuna ematen al zaion da eta Mikel Kerexeta jaunak erantzuten dio Kontratu Publikoen Legea hartzen dela kontuan eta Getxokoa edo beste udalerri batekoa izateari ez zaiola lehentasunik ematen.

Beste galdera bat pasadizokoekin eta pertsona baztertuekin zer egiten den da. Gizarte Zerbitzuen Arloko zuzendari teknikoak adierazten du horrelako jendearekin lan egitea oso zaila dela. Getxon ez dago pasadizokoen etxerik, baina ez da horretarako beharrik ere egon, orain artekoan, behintzat. Bilboko kasua bestelakoa da. Gure udalerrian, pertsona horiek jana, jantzia eta garbitasuna bermatuta dituzte Portuko Monjei esker; horiekin hitzarmena izenpetuta dago.

Egiten den beste planteamendu bat da Gizarte Zerbitzuak Mikel Kerexeta jaunak adierazitako moduan ulertzen direla edota zenbaitek ulertzen dituela, baina beste alor batzuk ere barnebildu beharko lituzke, esate baterako, hezkuntza, osasungintza, haurtzaindegiak eta abar. Gizarte Zerbitzuen Alorreko zuzendariak egia dela erantzuten dio. Baina Gizarte Zerbitzuen Legeak hemen azaldutakoa aurreikusten duela eta Sail gisa funtzio horiek dagozkiola.

Gizarte Zerbitzuen Alorreko zuzendariak ondoren adierazten du udalerriak bizi duen krisi-egoeraren ondorioz ez duela uste horrelako eskariak asko ugarituko direnik eta, hasiera batean behintzat, behar guztiak estali ahal izango dituela uste duela. Egun, immigrazioa zertxobait gelditута dagoela ere adierazi du eta jende berria etortzen bada ere, krisi ekonomikoaren ondorioz joan direnak ere badirela.

**2. 2010eko ekainaren 22ko Ingurumeneko Tokiko Foroaren bilerako akta.**

Pasa den ekainaren 22ko bilerako aktari bi eragozpen planteatzen zaizkio. Batetik, Xabier Buenetxea jaunak planteatzen du akats bat dagoela espezimenen zentsua jartzean, berez, lurraldeena baita. Bere aldetik, Patxi Diaz jaunak dio ekainaren 22ko bileraren aktak ez duela berak esandakoa zuzen jasotzen. Zehazki, Patxi Díaz jaunak kexa bat planteatu zuen ildo honetatik "Getxo inguruan, bailarako jabeek gauzatutako zenbait jarduerek Bolueko bailaratik Martiarturako sarrera egunetik egunera gero eta gehiago zailtzen dutela adierazten du. Egoera horren aurrean, Getxoko Udalari Erandioko Udalarekin harremanetan jartzeko eskatzen dio bien artean

**Ayudas económicas:**
1.529 RGI. 8.646.327 €
1.189 AES. 2.144.628 €
25 ANP. 31454 €.
28 AEI. 92.941 €
196 AFN. 17.740 €.

Después de la exposición de D. Mikel Kerexeta, se suceden las preguntas y comentarios.

Una de las preguntas se refiere a si en la contratación de técnicos del Dpto. de Servicios Sociales se prioriza a las personas que son de Getxo. D. Mikel Kerexeta responde que se tiene en cuenta la Ley de Contratos Públicos, y que no hay priorización en función de si son de Getxo o de otro municipio.

Otra de las cuestiones que se plantean es qué se hace con los transeúntes y personas excluidas. El director técnico del Dpto. de Servicios Sociales señala que es muy difícil el trabajo con esa gente. En Getxo no hay ningún hogar para los transeúntes, pero tampoco se ha visto necesario, al menos por el momento. Otra cuestión es el caso de Bilbao. En nuestro municipio, estas personas tienen garantizada la comida, la ropa y la limpieza con las Monjas del Puerto, con quienes se tiene suscrito un convenio.

Otro de los planteamientos que se hace es que los Servicios Sociales se han entendido o se entienden por algunas personas tal como lo ha expuesto D. Mikel Kerexeta, pero también que debe abarcar la educación, la sanidad, las guarderías, etc. El director del Departamento de SS responde que es cierto. Pero que la Ley de Servicios Sociales recoge lo que ha expuesto, y como tal departamento sus funciones son esas.

El director del Departamento de SS comenta posteriormente, que no piensa que vaya a haber un incremento importante de la demanda de dichos servicios con motivo de la crisis económica en el municipio, y que en principio cree que podrán cubrir todas las necesidades. También señala que actualmente la inmigración está algo estancada en el municipio, y que hay gente que viene, pero que también se ha ido, producto de la crisis económica.

**2. Acta de la reunión del Foro Local de Medio Ambiente celebrada el 22 de junio de 2010.**

Se plantean dos objeciones al acta de la reunión del pasado 22 de junio. Por una parte, D. Xabier Buenetxea plantea que hay un error en poner censos de ejemplares, cuando en realidad se trata de territorios. Por su parte, Patxi Diaz plantea que en el acta del pasado 22 de junio no se recoge bien lo que vino a decir. Concretamente, D. Patxi Díaz planteó una queja en el sentido "de que las diferentes actuaciones de los propietarios del valle en la zona de Getxo estaban dificultando, cada día más, el acceso a Martiartu por el valle del Bolue. Ante tal situación, solicitaba al ayuntamiento de Getxo que se pusiera en contacto con el ayuntamiento de Erandio para

konponbide bat aurkitzen saiatzeko".

Aktan bi gai horiek zuzentzea adosten da.

Ez da beste iruzkinik egin, beraz, gainerakoan, akta onesten da.

**3. Askotariko informazioak**

Jarraian, Ingurumen Arloko zinegotziak, Keltse Eiguren andreak, hartzen du hitza bi gairen berri emateko. Uztailean eta abuztuan bilerarik egiten ez denez, ezin izan du Foro honi adierazi eta gaiari buruz informatu; beraz, bilera honetan egiten du. Horietako bi hurrengo egunean egingo den prentsa aurrekoan emango dira argitara eta hirugarren bat azken egunetan gertatu delako.

**Mugikortasunaren astea**

Aurten ere, Mugikortasunaren Astea ospatu da; trafikoa Areetako hirigunean soilik moztu da, Algortako kale askotan obratan baitaude.

Egun horietan antolatutako jarduerekin oreka bat bilatu nahi izan da Getxo Enpresa eta Merkataritza elkartetik egindako eskabideei erantzunez, eskaera zorrotzenen eta ez hainbestekoen artean; horien azken xedea jendea kontzientziatzea da eta autoaren gehiegizko erabilerak eragindako arazoei alternatibak eta soluzioak bilatzea.

**Garbigune mugikor berria**

Ingurumen Arloko zinegotziak Udala urriaren 1ean garbigune mugikorreko zerbitzu berri bat abian jartzekoa dela adierazten du; zerbitzu horrek Getxoko bizilagunei, udalerriko auzo guztietakoei, etxean sortutako hondakin zatiak asteburuetan botatzeko aukera eskainiko die ondoren birziklatuak izan daitezen.

Garbigune mugikor berrian hiritarrek hainbat hondakin, toxikoak nahiz orain artekoan birziklatzen ez ziren beste zenbait, botatzeko aukera izango dute, horien artean, olioak; pinturak, lakak eta bernizak; fluoreszenteak eta lanparak; iraungitako sendagaiak; hondakin elektronikoak; disolbatzaileak; toner-/tinta-kartutxoak; CDak eta etxetresna elektriko txikiak (mikrouhinak, irratiak eta abar).

Garbigune mugikorrak ostiral arratsaldez funtzionatuko du 18:00etatik 21:00etara Areetako Geltokiaren Plazan; larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara Algortako Geltokiaren Plazan; larunbat arratsaldetan, 18:00etatik 21:00etara Bidezabaleko anbulatorioaren plazan; eta igande goizetan, 10:00etatik 14:00etara Iturgitxi Parkean, Villamonte inguruan. Gune horietan emaitza onak lortzen badira, aurrerago, Garbigunea beste auzo eta zona batzuetara ere zabalduko da.

tratar de encontrar un solución".

Se acuerda rectificar en el acta estas dos cuestiones.

No se plantean mayores comentarios, con lo que se aprueba el resto del acta.

**3. Informaciones varias**

A continuación, la concejala de Medio Ambiente, Dña. Keltse Eiguren toma la palabra para informar de dos temas que, dado que se suspenden las reuniones durante los meses de julio y agosto, no había podido trasladar a este Foro, e informar al respecto, por lo que lo hace en esta reunión; dos de ellos, se van a hacer públicos en una rueda de prensa que se va a celebrar al día siguiente, y un tercero porque ha ocurrido en los últimos días.

**Semana de la Movilidad**

Este año, se ha celebrado de nuevo la Semana de la Movilidad, cerrándose al tráfico únicamente el centro de Las Arenas, debido a que Algorta está con numerosas obras en sus calles.

Se ha intentado, con las actividades organizadas durante esos días buscar un equilibrio, atendiendo a las peticiones realizadas desde Getxo Empresarial y Comercial, entre las demandas mas exigentes y las menos, de unos y otras y cuya finalidad última pretende concienciarnos y buscar alternativas y soluciones a los problemas generados con el uso abusivo del automóvil.

**El nuevo Punto Limpio Móvil**

La concejala de Medio Ambiente informa, que el Ayuntamiento va a poner en marcha el viernes 1 de octubre el nuevo servicio de punto limpio móvil; este servicio va a posibilitar que los vecinos y las vecinas de Getxo de todos los barrios del municipio puedan depositar durante los fines de semana fracciones de residuos generados en el hogar, para su posterior reciclaje.

En el punto limpio móvil la ciudadanía podrá depositar diversos residuos, tanto tóxicos como algunos otros que hasta ahora no se reciclaban, tales como aceites; pinturas, lacas y barnices; fluorescentes y lámparas; medicamentos caducados; residuos electrónicos; disolventes; cartuchos de toner/tinta; CDs y pequeños electrodomésticos (microondas, radios,..), entre otros.

El punto limpio móvil funcionará los viernes por la tarde, de 18 a 21 horas, en la plaza de la estación de las Arenas; los sábados por la mañana, de 10 a 14 h., en la plaza de la Estación de Algorta; los sábados por la tarde, de 18 a 21 h., en la plaza del ambulatorio de Bidezabal; y los domingos por la mañana, de 10 a 14 h., en el Parque de Iturgitxi, en la zona de Villamonte. Si los resultados en estos puntos son buenos, con posterioridad el punto limpio se podría trasladar también a otros barrios y zonas.

Keltse Eiguren andrearen arabera, garbigune mugikorraren estrategiak baditu abantaila batzuk, ezin baita kaleetan edukiontzi gehiago jartzen jarraitu horrek iriskortasun-arazoak, aparkalekuen gutxitzea eta abar baitakartza. Bestalde, garbigune mugikorrarekin hondakin-kopuru handia biltzen denez, bilketa-zerbitzuak bateratu egiten dira eta, ondorioz, kostuak merkatu egiten dira.

Horren kudeaketarako, Emaus Kooperatiba Sozietateko kide diren udalerriko bi lagun kontratatu dira; horiek hiritarrei hondakinak behar bezala botatzen lagunduko diete eta, uneoro, bilketari eta hondakinen birziklapenari buruz informatuko dituzte. Udalak, ere berean, garbigune mugikorraren zerbitzuaren ordutegiei eta bertara eraman daitezkeen hondakinei buruz berri emango duen liburuxka banatuko du postontzietara.

**Hiriko pilen edukiontziak**

Ingurune arloko zinegotziak garbigune mugikorraz gain udalerrian erabilitako pilak eta sakelako telefonoen bateriak biltzera bideratutako pilen 19 edukiontzi jarri direla ere adierazten du. Edukiontzi horiek metro eta erdiko altuera, 500 milimetroko diametroa, 60 litroko edukiera eta botoi-pilentzako litro 1eko biltegia ditu. Edukiontziek segurtasun handiko itxituraz horniturik daude.
Pilen edukiontzien kokapena jarraian adierazten den hau da: Andra Mari Polikiroldegian; Algortan Errementariena kalean; Hirutasun kalearen eta San Martinen (Hirukoiztarren Eliza) arteko bidegurutzean; Bidezabaleko osasun-zentroan; Kasune kalean; Portu Zaharrean; Bizkerre kalean; Iturgitxi parkean; Alangoko osasun-zentroan; Madurako polikiroldegian. Negurin, Metroko geltokiaren inguruan; Erromo-Areetan; Plentzia Hiribildua kalea; Ezequiel Aguirre (San Jose Langilearen eliza); Ganeta plazan; Areetako Geltokiaren plazan; Paulino Mendibil eta Santa Ana plazan. Algortan, Aldapakoak eta Geltokiaren plazakoak behin obrak gauzatutakoan jarriko dira.

**Alokairuko etxebizitzak eta Andra Mari Gure Lurra elkartearekin akordioa**

Ingurumen Arloko zinegotziak adierazten du azken Osoko Bilkuran etxebizitzaren gaiari eragin diezaioketen bi puntu onartu zirela. Horri dagokionez, Hirigintza Arloko zinegotziak, Joseba Arregi jaunak, Foroari une honetan HAPN berrikusteko kontraturako administrazio-izapideak eta aldez aurreko azterketak gauzatzen ari direla adierazteko eskatu dio eta behin amaitzen direnean atsegin osoz etorriko dela dio emaitzen berri ematera.

Keltse Eiguren andreak ere aipatzen du Getxoko Udalak lehenengo urratsa eman duela Alangon, gutxienez, 150 etxebizitza alokairuan sustatzeko; horietatik %60a 35 urtetik beherako gazteei bideratuko zaizkie. Iraileko Udaleko Osoko Bilkuran, zona horretan dauden bi oruberen azalera-eskubidearen emakida onartu da 75 urterako. Obrak 2011n hastea aurreikusten da eta

Según Dña. Keltse Eiguren, la estrategia del punto limpio móvil tiene algunas ventajas, ya que no se puede seguir ubicando más contenedores en la calle, por los problemas que se generan de accesibilidad, ocupación de plazas de aparcamiento…. Por otra parte, con el punto móvil, al recogerse gran cantidad de residuos, se unifican los servicios de recogida, con lo que se abaratan los costes.

Para la gestión del mismo, se ha contratado a dos personas del municipio pertenecientes a la S. Coop. Emaus, que ayudarán a la ciudadanía a realizar correctamente el depósito de los residuos, e informarán en todo momento sobre la recogida y el reciclaje de residuos. El Ayuntamiento, a su vez, va a buzonear un folleto en el que se dará cuenta de los horarios del garbigune móvil y de los residuos que en él se pueden depositar.

**Contenedores de pilas urbanos**

La concejala de Medio Ambiente informa también que, además del punto móvil limpio, se han colocado en diferentes puntos del municipio 19 contenedores de pilas, destinados a la recogida de pilas usadas y baterías de teléfono móvil. Estos contenedores tienen una altura de metro y medio, 500 milímetros de diámetro y una capacidad para 60 litros más un depósito de 1 litro para pilas botón. Los contenedores llevan un cierre con un sistema de alta seguridad.
La localización de los contenedores de pilas es la siguiente: Polideportivo de Andra Mari; en Algorta, calle Errementariena; Cruce calle Trinidad con San Martin (Iglesia Trinitarios); centro de salud de Bidezabal; calle kasune; Puerto Viejo; calle Bizkerre; parque Iturgitxi; centro de salud de Alango; y en el polideportivo de Madura. En Neguri, en las inmediaciones de la estación del Metro; en Romo-Las Arenas, calle Villa de Plencia; Ezequiel Aguirre (iglesia San José Obrero); plaza ganeta; plaza de la Estación de Las Arenas; Paulino Mendibil y plaza Santa Ana. An Algorta, los de Aldapa y la Plaza de la estación se colocarán una vez finalicen las obras.

**Viviendas de alquiler y Acuerdo con Andra Mari Gure Lurra**

La concejala de Medio Ambiente informa que en el último Pleno han aprobado dos puntos que pueden afectar al tema de la vivienda.; al respecto, el concejal de Urbanismo, Sr. Joseba Arregi, le ha pedido que raslade al Foro que, ahora se están ralizando los tramites administrativos para la realización del contrato de revisión para el PGOU y los estudios previos; terminados los mismos, estará encantado de venir a informar el resultado de los mismos.

Dña. Keltse Eiguren también comenta que el Ayuntamiento de Getxo ha dado el primer paso para la promoción de un mínimo de 150 viviendas de alquiler en Alango, un 60% de las cuales se destinará a jóvenes menores de 35 años. En el pleno municipal de septiembre se ha aprobado, la concesión del derecho de superficie durante 75 años de dos solares, ubicados en la citada zona.

betearazpen-epe estimatua 24 hilabetetakoa izango da.

Jarduera hori legegintzaldi honetarako EAJ-PNV eta PSE-EE Gobernu-Taldeak adostutako lurzoru hiritarrerako Etxebizitza Planean kokatzen da; bertan, lurzoru hiritarrean gauzatuko diren babes ofizialeko sustapen pribatuak eta publikoak gutxi gorabehera 5 urteko epean gauzatu behar direla aurreikusten da.

Alangon gauzatuko den alokairuko lehenengo promozio honetan, 133 etxebizitza egitea aurreikusten da, zeinak, 5 urterako alokatu ahal izango diren eta behin 15 urte igarotakoan gainerako azalera-eskubidea erosteko aukera emango den babeseko etxebizitza erregimenean.

Udalaren eta Andra Mari Gure Lurra elkartearen arteko akordioari dagokionez, Ingurumeneko zinegotziak adierazten du arestian aipatutako Osoko Bilkuran, PP taldearen abstentzioarekin eta gainerako udal-taldeen babesarekin, Bozeramaileen Batzordeak Andra Mari Gure Lurra elkartearekin adostutako akordioa berretsi dela.
Akordio horrek garapen hiritarreko zona horretan lehendik dauden etxebizitzen mantentze-irizpidea HAPNaren berrikuspenaren talde idazleari iritsaraztean datza. Hirigintza-neurriek, salbuespenezko kasu gisa, beren ohiko etxebizitzetan bizi diren legezko okupatzaileek etxeak utzaraztea eragiten badu, indarrean dagoen legediaren esparruan berralojatu beharko dira. Jarraian, Keltse Eiguren andreak Udalaren erabakia irakurtzen du. Andra Mariko Auzotarren Elkartearekin ere akordio horretara iritsi al diren galdetzen dute. Ingurumen Arloko zinegotziak erantzuten dio Hirigintza Antolamenduko Aholku Batzordean biek, Andra Mari Gure Lurra elkarteak eta Andra Mariko Auzotarren Elkarteak, txandaka hartzen dutela parte eta, kasu honetan, Andra Mari Gure Lurra elkartearekin iritsi direla akordiora beren proposamenez auzotarrak lasaitzeko helburuarekin.

### Korridore berdea

Tomi Etxeandía jaunak adierazten du Eskolako Agenda 21ean biodibertsitatea aztertzen ari direla eta Foro honetan adostu zen korridore berdea egiteko azterketa zertan den jakin nahia planteatu da. Julen Rekondo jaunak erantzuten du gai hori Jarduera-Plana egin zenean atera zela, baina, azkenean, jarduera hori –beste hainbatekin batera– onartu den plana baino beranduagoko batera atzeratu zela. Hurrengoan HAPN berrikusten denean gai hori plantea daitekeela ere aipatzen da.

### Gazte bat autoak harrapatu du

Pedro Barrenetxea jaunak adierazten du Mugikortasunaren Astearen harian bizikleten martxa antolatu zutela urtero bezala Aixerrota Institutuak eta San Nikolas Ikastetxeak elkarlanean. Behin eskola-orduak amaitu zirenean, ikasleak etxera itzultzerakoan, bizikleten martxan parte

Se prevé que las obras podrían comenzar en 2011 y el plazo de ejecución estimado es de 24 meses.

La actuación se enmarca en el Plan de Vivienda en suelo urbano, acordado para esta legislatura por el Equipo de Gobierno del EAJ-PNV y el PSE-EE, que contempla el impulso de promociones privadas y públicas de protección oficial que en suelo urbano deben ser desarrolladas en un plazo aproximado de 5 años.

Esta primera promoción en alquiler en Alango contempla 133 viviendas que se alquilarán por períodos de 5 años, y pasados 15 se dará la posibilidad de compra del derecho de superficie restante como vivienda de protección.

En relación con el acuerdo municipal con la asociación Andra Mari Gure Lurra, la concejala de Medio Ambiente informa que en el Pleno antes mencionado, se había ratificado, con la abstención del PP, y el apoyo del resto de grupos municipales, el acuerdo adoptado por la junta de Portavoces relativo al acuerdo alcanzado con la asociación Andra Mari Gure Lurra.
El citado acuerdo consiste en trasladar un criterio de mantenimiento, de las viviendas existentes actualmente en esa zona de desarrollo urbano, al equipo redactor de la revision del PGOU. En el supuesto excepcional de que las medidas urbanísticas requirieran el desalojo de los ocupantes legales de las viviendas, que constituyen su residencia habitual, se garantizará el derecho de realojo en el marco de la legalidad vigente. A continuación, Dña. Keltse Eiguren lee el acuerdo municipal. Se le pregunta si ese acuerdo al que se ha llegado también se ha hecho con la AA.VV. Andra Mari. La concejala de Medio Ambiente responde que en el Consejo Asesor de planeamiento urbanístico se alternan la participación, entre ambas, la agrupación Andra Mari Gure Lurra y la Asociación de Vecinos Andra Mari y, en este caso, el acuerdo se ha llegado con la asociación Andra Mari Gure Lurra, a propuesta suya, con el objetivo de tranquilizar a los vecinos y vecinas.

### Corredor verde

D. Tomi Etxeandía informa que en la Agenda Escolar 21 se está estudiando la biodiversidad y se ha planteado cómo está el estudio que se había acordado en este Foro de hacer un corredor verde. Se le responde por parte de D. Julen Rekondo, que este tema salió cuando se elaboró el Plan de Acción, pero que al final esta acción, junto a otras, se pospuso para un plan de acción posterior al que se ha aprobado. También se comentó, que al revisar el PGOU próximamente, se podría plantear este tema.

### Atropello de un joven

D. Pedro Barrenetxea informa que con motivo de la Semana de la Movilidad, se celebró la marcha de bicis, que organiza conjuntamente el Instituto de Aixerrota y la Ikastola de San Nicolás todos los años. Una vez finalizada la jornada escolar, cuando los alumnos volvían a sus casas,

hartu zuen mutiko bat harrapatu zuen auto batek. Autoaren gidariak ez zuen gida-baimenik eta abiadura handiz zihoan zona horretan 30km/orduko abiadura-muga egonagatik. Nahiko zauri larriak eragin zizkion mutikoari, zeinak, kaskorik ez zeraman. Heziketaren garrantzia azpimarratu zen eta guztiak horrekin ados zeuden. Arau-hausleari dagokionez, berriz, harentzako eta gainerako arau-hausleentzako "esku zorrotzean" utziko dugu.

tuvo lugar el atropello de un chaval, que había tomado parte en la marcha ciclista, cuando salía del citado Instituto, por un coche, cuyo conductor no tenía carnet de conducir y lo hacía a alta velocidad, cuando es una zona donde no se puede circular a más de 30 km/h. El atropello había ocasionado heridas bastante importantes al joven, que no llevaba casco. Se comentó la importancia de la educación, y aquí todo el mundo estaba de acuerdo, y de cara al infractor, vamos a dejarlo "en mano dura", con él y con los demás infractores.

Ikastetxeetara bidegorri tramuak egiteko daudela ere aipatu da eta, baita, 30 km/orduko abiadura gainditu ezin daitekeen zonatan seinaleztapena jartzea falta dela ere.
Keltse Eiguren andreak adierazten du gai horiek dagozkien sailetara igortzeko asmoa duela, bere kasuan, seinaleztapena berrikusteko.

También se comentó el tema de que faltan por hacer los trayectos de bidegorris hasta los centros educativos, y también de poner señalítica en aquellas zonas que no se pueden pasar de los 30 km/h. .
La Sra. Keltse Eiguren manifiesta su intención de dar traslado de estas cuestiones, al departamento correspondiente, para en su caso, realizar una revisón de la señalización.

**4. Hurrengo Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroaren bileretan jorratuko diren gaiak.**

Bilerarekin jarraitzeko kasik denbora materialik ez dagoenez, puntu hau hurrengo bileran jorratuko dela erabakitzen da; hurrengo bilera 2010eko urriaren 26an egingo da.

**5. Galderak eta Eskaerak**

Kapitulu honi dagozkion zenbait puntu jada jorratu dira akta honetan zehar.

Getxon, 21:30etan bilera amaitutzat ematen da.

**4. Temas a tratar en las próximas reuniones del Foro Local de Medio Ambiente de Getxo**.

Debido a que no hay materialmente tiempo para seguir con la reunión se decide tratar este punto en la próxima reunión a celebrar el 26 de octubre de 2010.

**5. Ruegos y preguntas**

Algunos de los puntos referidos a este capítulo ya se han abordado a lo largo de esta acta.

En Getxo, a las 21:30 horas se da por finalizada la reunión.